

KULTURAREN EUSKAL BEHATOKIAREN

URTEKO MEMORIA



2011ko EKITALDIA



AURKIBIDEA

AURKEZPENA	3
1. IKERKETA, HAUSNARKETA ETA KONTRASTEAK	4
1.1. Sareko sorkuntza eta kultura-sareak	4
1.2. Gazteen kultura-konsumoa	5
1.2. Digitalizazio-mapak	5
1.3. 2.0. prestakuntza	6
1.4. 2.0 esperientziak eta topaketak	6
1.6. Finantzaketa-lerroak	7
2. INFORMAZIOA KUDEATZEKO SISTEMA	8
2.1. Artxiboen estatistika	8
2.2. "Finantzaketa eta gastu publikoa kulturean" estatistika	8
2.3. "Arte eta kultura-industriak" estatistika	9
2.4. Kulturako enpleguei eta enpresei buruzko azterlan estatistikoa	9
3. KOMUNIKAZIOA ETA HARREMANAK	10
3.1. Behatokiaren emaitzak hedatzea	10
3.2. Jakintza-berriak hedatzea	10
3.3. Hedapen-, kontraste- eta hausnarketa-ekintzak	11



AURKEZPENA

Aurten ere, balantzea egiteko unea iritsi zaigu, egindako lana gogoratzeko eta distantzia hartzeko garaia, hain zuzen ere. Emaizten kontakizunera iritsi baino lehen kontuan hartu beharreko lehen gauza zera da, 2011n aldaketa garrantzitsua izan duela Kulturaren Euskal Behatokiak antolamenduari eta baliabideei dagokienez, eta planteamendu eta know-how berriak eskatu dituela horrek, jada duela bost urte hasitako lanarekin jarraitzeko.

Horrelako ezaugarriak dituen erakundea izanik, estatistika da bere egiturazko oinarria. Lan-alor horretan ezin da inprobisaziorik egin; izan ere, estatistikak plangintza, prestaketa eta lan iraunkor eta erregularra eskatzen du, serieak finkatzea ahalbidetuko duena, alegia. Hain zuzen ere, erabakiak hartzeko nahikoa oparoa den informazioa eskaintzen duten sektore berrieekin, eragiketa berrieekin eta finkaturiko estatistiken bigarren edizioekin ari da osatzen lehen urteetako lana. Hainbat irakurketa ahalbidetzen dituen informazio-oinarri zabala dugu. Eta Behatokiak bere lanaren zati handi bat horretara bideratu du.

Jakintzaren gizartean, datuak sortzeak, sailkatzeak eta interpretatzeak nahiz datuei zentzua emateak balio inplizitua du, eta balio inplizitu hori, gainera, erabilgarria da kultura-politika eta -agenteentzako. Hain zuzen, horrek ematen dio zentzua behatokiari. Horrela, sareko sorkuntza-modu eta -eredu berrien jakintzara bideratutako ikerketa-ildoek, belaunaldi gazteenen kultura-kontsumoaren gakoek, finantzaketa-formulek edota esparru digitalean eta 2.0 kulturaren bateratzen diren gaien amalgamak kultura-politiketarako gomendioak eskaintzeko balioko duten azken helburua dute.

Alabaina, ezin dugu ahaztu egungo testuinguru ekonomikoan (hain zalantzazkoa eta aldakorra izanik kulturaren zuzeneko intzidentzia duena), eraginkortasuna eskatzen dela gastuan eta lan-prozesuetan, eta batez ere, kulturara baliabideak bideratzen jarraitzeko argudio sendoak. Horixe da, hain zuzen ere, Kulturaren Euskal Behatokiak gaur egun egiten duen ekarpena.



1. INFORMAZIOA, HAUSNARKETA ETA KONTRASTEA

Behatokiak egindako ikerketa kualitatiboen ildoak azterlan berriak ekarri zituen 2011n; azterlan horietan sare/sorkuntza binomioa, gazteen kultura-kontsumoa eta finantzaketa-tresnen azterketa eztabaidatu dira; gori dauden gai horiek sakon ezagutzeko ez ezik, kultura-politiken zerbitzurako orientabideak eta gomendioak proposatzeko ere (batez ere, horretarako) planteatu ziren arestian aipaturiko gai horiek guztiak.

Bestalde, bilduriko blokeetako beste bat 2.0 Kultura ekimenaren inguruko izan da. 2010ean antolatutako lan-taldeetan bilduriko proposamenen ondoriozko proiektuak dira, 2011n hezurramitu direnak, hain zuzen ere, honako hiru lan-bide hauetatik: EAEko kulturaren eta digitalizazioaren egoera-mapak bat formatu-prestakuntzarako materialekin eta "Esperientziak" izeneko dibulgazio-saio jakin batzuekin; horietarako deialdia luzatu zitzaien EAEko kultura-agenteei.

1.1. Sareko sorkuntza eta kultura-sareak

Azken urteotan sorkuntza-ingurunean gertatu diren aldaketen ondorioz, antolamendu- eta babes-egitura publikoak gogoeta-une batean daude gaur egun. Sistema tradizionalak dagoeneko ez diote guztiz erantzuten sorkuntza- eta kultura-errealitateari, ezta administrazio publikoen bilakaerari berari ere. Izan ere, gaur egungo gizarte konektatu eta globalizatuan, sorkuntza-prozesuak eta kultura-agenteen antolamendua beti ez datoz bat egitura garbi eta estatikoekin. Era berean, kultura-sektorearen eta gizarte osoaren premien eta errealitate berriaren ondorioz, kultura-politikak aldaketa-prozesu batean murgilduta daude.

Kulturaren Euskal Behatokiak hiru dimentsiotatik egin du txosten hau:

- Sarean sortzeko eta antolatzeko modu berriek dakarten paradigma-aldaketarako hurbilketa teoriko bat lantzea.
- Horrelako erakundeak eta egiturak sustatzera zuzendutako egungo babes-esparrua eta bilakaera aztertzea, nazioartean, Estatuan eta Euskadiko errealitate zehatzean.
- Gaur egungo ingurunearekin eta joerekin bat etorriko diren kultura-politikak zehazteko baliagarriak izango diren hainbat orientabide –ondorio gisakoak– proposatzea.



1.2. Gazteen kultura-kontsumoa

Gazteen kultura-kontsumoa aztertzeko estatistika-informazioaren azterketa xehatua EAEn eta beste hainbat herrialdetan gazteen kultura-kontsumoa sustatzeko dituzten politiken modelizazioarekin konbinatu du azterlanak, horri buruzko gomendio jakin batzuk proposatzeko.

Eskuragarri dagoen estatistikari dagokionez, informazio-oinarria (Kulturak Ohitura, praktika eta Kontsumoa 2007-2008 Estatistika) ez zen espezifikoki kolektibo horretarako diseinatu; izan ere, kolektibo horrek berezko ezaugarriak ditu, baita funtsezko eginkizuna eduki ere teknologia berrietan. Horretaz gain, aldaketa teknologikoei dakarten bizkortasuna ere nabarmendu behar da, kultura-erabilera eta -ohituretan efektu handiak izanik. Muga horiek gorabehera, adin-taldeen arabera egindako esplotazioak gazteen kultura-kontsumoan dauden aldeak atzematea ahalbidetzen du (batez besteko orokorrean nahiz kolektiboaren barrukoan). Gizonen eta emakumeen artean ere kontsumo desberdinak bereiz ditzakegu.

Gazteen kultura-kontsumoa sustatzeko politika publikoei gagozkiela, azterlanean modelizazio bat ezartzen da, nazioartean erreferentziazkoak diren esperientzien azterketatik abiatuz, eta bigarrenik, EAEn bultzatutako ekimenak aztertzen dira.

Laburbilduz, errealitatearen argazkiak nahiz kasuen azterketak gomendio jakin batzuk funtsatzen dituzte, EAEn kultura- eta gazte-politikak garatzeko ardura dutenen interesekoak izan daitezkeen gomendioak, hain zuzen ere.

1.3. Digitalizazio mapa

Kulturari eta digitalizazioari buruzko lan-taldeek —Kulturaren Euskal Behatokiak 2010ean koordinatutakoek— proposatuta atera zen proiektua, eta edukietan, formatuetan, eskubideetan, hedatzean eta erabiltzaileengan eragina duten hainbat gai biltzen ditu, azken helmuga abian dauden digitalizazio-prozesuak koordinatzea eta prozesu horiek etorkizunean garatzeko zenbait jarraibide eskaintzea izanik.

2011n azterlan kualitatibo bat egin da, sakoneko elkarriketen bitartez, digitalizazioaren esparruan garrantzitsuak diren zenbait erakunde gauzatzen ari diren proiektuak lehen eskutik ezagutzeko. Gainera, bi hurbilketa konbinatu dira: horietako bat, gure ingurunean egiten ari diren jardunen eredu eta inspirazio gisa balio dezaketen printzipioei eta politikei buruzko nazioarteko erreferentzia, gomendio eta orientabide orokorrak bilatzeko. Lanerako bigarren bidea, izaera teknikokoa, formatu



eta metadatuaren gaineko baldintza eta orientazio teknikoak ezagutzera bideratu da. Azkenik, EAEn gauzatzen diren proiektuetan agian aplikatu litezkeen ondorio eta gomendio jakin batzuk biltzen ditu azterlanak.

1.4. 2.0 Prestakuntza

Teknologia berrien eta 2.0 Kulturaren inguruko ikaskuntza-material jakin batzuk sortu dira 2011n. Zehazki, bi prestakuntza-eduki mota sortu dira: batetik, koaderno monografikoak, lan-eskuliburu edo -gidaliburu gisa gai espezifiko bat aztertzen dutenak, eta bestetik, “prestakuntza-pilulak”, dinamikoak eta puntualagoak, sektoreko profesionalen eskaera zehatzei erantzuten dietenak.

Zehazki, **Behatokiaren webgunean** eta **Kulturklik** web-orrian eskura daitezkeen honako eduki hauei heldu zaie:

- Ikusgarritasuna 2.0 sarean: sarean dugun presentzia hobetzeko eta monitorizatzeko jarraibideak.
- Eduki digitalak hedatzeko eta zaintzeko formatuak.
- *Social media* deritzenetan aztarnari jarraitzeko eta monitorizatzeko erremintak.
- OCR: irudi batean karaktere-ezagutze optikarako teknologia.
- Artxiboak biltegiratzeko, transferitzeko eta partekatzeko aplikazio praktikoak.
- Berrikuntza teknologikoa eta artea: musikarako aplikazio praktikoak.
- Presentzia *Facebook* gizarte-sarean: banako pertsonentzako profilak eta erakundeetarako orriak.
- Facebook pertsonalizatzeko aplikazioak.
- Doako *online* aplikazioak.

1.5. Esperientziak eta topaketak

Prestakuntza-materialak sortzeaz gain, Behatokiaren aburuz aberasgarria da esparru horretako adituekin presentziatzeko saioak antolatzea, aditu horiek 2.0 kultura-proiektuetan izandako ibilbide eta esperientzia pertsonala transmiti dezaten eta horrelako gaietan interesa duten pertsonen arazoei eta kezkei erantzun diezaieten.



2011n, 2010aren amaieran hasitako esperientziarekin jarraitu da; esperientzia horretan, bubok-eko (eskari bidezko inpresio digitala duen online argitalpeneko sistema) kide eta iniciador-eko fundatzaile Ángel María Herrera gonbidatu zen.

1. Esperientzia [urtarrila]

Urtearen hasieran *Manfatta*-ko Neus Arqués joan zen; Interneteko marka-posizionamenduan aditua da Neus Arqués. Hainbat argitalpenetan hartu du parte, besteak beste, *Visibilidad* (Gestión 2000, 2009) argitalpena sortzeko prozesuan (Interneten enpresen eta profesionalen ikusgarritasuna eta entzutea kudeatzeko moduari buruzko gidaliburu praktikoa), eta *Aprender comunicación digital* (Paidós, 2006) argitalpenaren egilea da. Bi esperientzia horiek sektore guztietako kultura-agente ugari erakarri zituzten.

2. Esperientzia [maiatza]

Ana López (Kultur Leioa), Mikel Madina (Kulturklik) eta Antón Bilbao-rekin (Artium) mahai-inguru bat antolatu zen; bertan, gizarte-sareen erabileran izandako esperientziak aurkeztu zituzten, eta baita kulturaren esparruko erakundeetan horiek izan ditzaketen aplikazioen gainean eztabaidatu ere. 100 pertsona inguru bertaratu ziren eta saioa *streaming*-en eskaini zen.

3. Esperientzia [iraila]

Azkenik, Julen Iturbe-Ormaetxek zuzendutako lan-tailer bat koordinatu zen La Hacerían, kultura-agenteen arteko lankidetzak digitala hobetzeko eta proiektuen arteko konexio naturalak faboratzeko jarraibideak identifikatzeko jomugarekin.

1.6. Finantzaketa eta kredituak kulturean

Kulturaren Euskal Behatokia kulturako estatistiken sistema partekatu bat garatzen ari da, erabakiak hartzeko eta kultura-agente publiko eta pribatuen bilakaerari jarraipena egiteko laguntza gisa. 2011n, orain arteko informazio-hutsune garrantzitsuak betetzeko bi eragiketa berriren emaitzak ezagutzera eman dira: lehenik eta behin, artxiboena, ondarearen esparruko informazio estatistikoa osatzeko balio izan duena, eta bestetik, finantzaketa eta gastu publikoari buruzkoa; horri dagokionez, EAEko administrazioek kulturean egindako ekarpena ezagutzeko ezinbesteko erreminta da, eta are ezinbestekoagoa egungo testuinguru ez-ziurra kontuan hartut.



2. INFORMAZIOA KUDEATZEKO SISTEMA

Kulturaren Euskal Behatokia kulturako estatistiken sistema partekatu bat garatzen ari da, erabakiak hartzeko eta kultura-agente publiko eta pribatuaren bilakaerari jarraipena egiteko laguntza gisa. 2011n, orain arteko informazio-hutsune garrantzitsuak betetzeko bi eragiketa berriren emaitzak ezagutzera eman dira: lehenik eta behin, artxiboena, ondarearen esparruko informazio estatistikoa osatzeko balio izan duena, eta bestetik, finantzaketari eta gastu publikoari buruzkoa; horri dagokionez, EAEko administrazioek kulturean egindako ekarpena ezagutzeko ezinbesteko erreminta da, eta are ezinbestekoagoa egungo testuinguru ez-ziurra kontuan hartuta.

2.1. Artxiboen estatistika

Behatokiak, IRARGI Euskadiko Kultura Ondarearen Zentroarekin koordinatuta, **Artxiboen 2009ko Estatistikaren lehen edizioaren emaitza-txostena** egin du. EAEko 302 artxiboren egoera deskribatzeko txostenaz gain, **Behatokiaren webguneko aplikazioan** xehetasunez kontsultatzeko tratatu dira datuak.

Besteak beste, udal-artxiboei buruzko honako informazio hauek egiaztatu dira: panorama globalean duten garrantzia (% 86,4), sortzen duten enplegua (792 langile), dokumentazioari eta deskribapen-tresnei dagokienez dituzten ezaugarriak, barne-jarduera (horregatik, duten bilakaera estatistikaren bitartez ezagutzea komenigarria da), eta logikoa denez, erabiltzaileei eskaintzen dizkieten zerbitzuak.

2.2. Finantzaketa eta gastu publikoa kulturen-estatistika

2011n, kulturako Finantzaketari eta Gastu Publikoari buruzko Estatistikaren lehen edizioaren emaitzak jakitera eman dira, 2008ko datuekin. Azterlan horren ekarpenetako bat zera da, kulturako gastu publiko bateratuaren ikuskera global eta hobetua izatea ahalbidetzen duela, hain zuzen: 510,2 milioi euro, hots, 234,8 euro biztanle bakoitzeko.

Bestalde, eragiketa hori garrantzitsua da, borondate politikoen isla baitira aurrekontuak, administrazioen aurrekontuen esparru orokorrean kultura-politikari ematen zaion garrantzia eta protagonismoa ezagutzea eta aurrekontu hori kulturen nola banatzen den jakitea ahalbidetzen dutela kontuan hartuz. Horrela, administrazioaren logika funtzionala azter daiteke (hots, berezko hornikuntza zenbateraino nagusitzen den itunei eta sektore pribatuari laguntzeari dagokienez), eta baita kulturaren azpisektoreei eman beharreko laguntzaren lehentasunak ere. Argudio horiek edozein zirkunstantzian ahalik eta in-



formazio objektibo gehien eskatzen badute ere, egungo krisialdi-testuinguruan argudio sendoak behar dira kulturako gastu publikoaren garrantzia defendatzeko. Eta azterlan horrek horretan laguntzen du.

Illo horretatik, azterlanaren balio-elementuetako beste bat zera da, bilakaerak aztertzea eta joerak iragartzea ahalbidetuko duen denbora-segida egonkor bati hasiera ematen diola, hain zuzen ere. Aurkezten diren datuen izaera estatikoaren, “argazki finkoko” izaeraren ondoriozkoa da azterlanaren muga nagusia, eta etorkizunean azterlanak egiteko abiapuntu gisa balio du.

Edizio berria 2011n atera zen, eta 2010eko datuak hartzen ditu barne. Urtean zehar, galdesortaren diseinua egin da lan; galdesortak oinarritzko edukiei eusten die, baina lehen edizioako esperientziaren ondoriozko hobekuntzak txertatzen ditu; azkenik, landa-lana egin da.

2.3. Arte eta kultura industriak-estatistika

Arte eta Kultura-industriei buruzko informazioa jasotzeko prozesua amaitu da 2011n, eta horretaz gain, datuak tratatzeko, ustiatzeko eta aztertzeko lanak ere egin dira. Lehen ediziotik lorturiko esperientziari esker (2009, 2007ko datuekin), prozesu horiek egokitu eta hobetu ahal izan dira, sektoreen errealitateari buruzko gero eta datu egiazko eta zehatzagoak erdiesteko helburuarekin.

Nobedade gisa, edizio horretan liburuaren industria eta diskoaren merkataritza txertatu dira. Guztira, arte eszenikoetako (ekoizpena eta programazioa), ikusizko-arteetako (ekoizpena, erakusketa eta merkataritza), musikako (programazioa, diskoetxeak eta merkataritza), ikus-entzunezkoetako (ekoizpena) eta liburu-sektoreko (ekoizpena eta merkataritza) 595 agentek hartu dute parte.

Egindako azterketek deskribaturiko sektore bakoitzaren egoera-deskribapenak interpretazio-irakurketa panoramikoak ahalbidetzen dituzten asmo handiagoko begiradekin konbinatzen dituzte.

2.4. Kulturako enpleguei eta enpresei buruzko azterlan estatistikoa

Kulturako enpresei eta enpleguei buruzko azterlanaren bigarren edizioa —2010ean zegoen informazioaren eguneratzea— jarri da abian.

Azterlan horren informazio-oinarria Kulturaren Euskal Behatokiak eta Kultura Sailak sustatzen dituzten estatistikak dira, eta baita beste hainbat iturri ere, hala nola Eustat, bereziki, Jarduera Ekonomikoen Gidazerrenda (JEGID) eta Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioa, Enpresen Direktorio Zentralari buruz (DIRCE), eta Biztanleria Aktiboari buruzko Inkesta (BAI).



3. KOMUNIKAZIOA ETA HARREMANAK

Behatokiaren lanari balioa emateko, batetik, haren hedatze-kanal egonkorrei eutsi behar zaie eta edukiz hornitu behar dira, bestetik, hedatze- eta egiaztatze-saio espezifikoak antolatu behar dira, eta azkenik, urtean jasotzen diren kontsultei eta eskariei erantzun behar zaie. Jarraian, 2011n gauzaturiko komunikazio-ekintzen laburpena jaso dugu.

3.1. Behatokiaren emaitzen hedapena

2011ko ekitaldian Kulturaren Euskal Behatokiak sortzen dituen estatistikei eta azterlanei buruzko edukiak hedatu dira, eta baita 2.0 Kultura ekimenarekin loturiko materialak ere:

- **Estatistiken eta Azterketen bilduma.** Bildumak hiru zenbaki berri gehitu ditu: 10. zenbakia, Kulturako Finantzaketari eta Gastu Publikoari buruzko 2008ko Estatistikaren emaitzen txostenaren gainekoa, 11. zenbakia, Digitalizazio-mapa jasotzen duena, eta 12. zenbakia, Artxiboen Estatistikaren emaitzak biltzen dituen.
- 2.0. Prestakuntza: esparru horretan, bi **Prestakuntza Koaderno** eta zazpi **Prestakuntza Pilula** hedatu dira.
- **Behatokiaren webgunea:** Behatokiak sortzen duen informazioaren errepositorioa da.

3.2. Jakintza albisteen hedapena

2011n *Kulturkaria* hileko buletinak hedatu dira Kulturkliken bitartez. Atariko jakintza-alorreko edukirik garrantzitsuenen hautaketa bat jasotzen du; ataria lau bloke handitan dago egituratuta: laburrak, esperientziak, azterlanak eta estatistikak eta argitalpenak. Aldizkarien eta erreportajeen laburpen bat ere badu.



3.3. Hedapen, kontraste eta hausnarketa ekintzak

Kulturako Finantzaketari eta Gastu Publikoari buruzko Estatistikaren emaitzekin lotutakoak izan dira jarduera nagusiak. Lehenik eta behin, haren diseinuan parte hartu zuen lan-taldeari dei egin zitzaion ekainean, emaitzak balidatzeko eta hurrengo ediziorako hobekuntza-proposamenak jasotzeko.

Bestalde, edizio horretan parte hartu duten erakundeei banakako fitxa bana bidali zaie; horri esker, emaitzak izateaz gain, antzeko ezaugarriak dituzten erakundeekin aldera dezakete beren burua.

Azterlanaren garrantzia dela-eta, emaitzak aurkezteko bilera deia luzatu zitzaion EAEko administrazioetako kultura-arduradun politiko eta -teknikariei. Azkenik, Kultura Sailak eta Foru Aldundiek baterako aurkezpen publikoa egin zuten.

Halaber, behatokiak Kulturen aldeko Herritar Kontratua digitalizatzeko taldean ere parte hartu du, 2011n egindako digitalizazio-mapa aurkeztuz.

Azkenik, 2.0 Kultura proiektuaren esparruan antolaturiko lau **esperientziak** ere nabarmendu behar-rekoak dira; izan ere, EAEko kultura-agenteeek oso harrera ona egin diete esperientzia horiei..